

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Euskara Zerbitzua

2020-2021 ikasturtean hainbat arlotan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko deialdiaren ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorretako 9.2 artikulua betez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 30ean hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Bertan, 2020-2021 ikasturtean hainbat arlotan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko deialdia ebazten da. Hala dio ebazpen berria:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 15eko ohiko bilkuran proiektu hauek diruz laguntzeko deialdiaren berriazko oinarri arauemaileak onartu zituen: 2020-2021 ikasturtean hainbat arlotan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak.

2020ko uztailaren 17an deialdi horren oinarri arauemaileak argitaratu ziren ALHAOn. Deialdiaren zuzkidura 68.000,00 eurokoa izan da Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko Euskara Zerbitzuaren 2020ko ekitaldiaren aurrekontuaren 0171.3351.48005 diru-atalaren kontura.

Balorazio batzordea 2020ko urriaren 8an bildu zen, eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko.

68.000,00 euroko kopurua sei multzotan banatuta dago, modu honetan:

- A multzoa: 8.000,00 euro.
- B multzoa: 13.000,00 euro.
- C multzoa: 12.000,00 euro.
- D multzoa: 20.000,00 euro.
- E multzoa: 12.000,00 euro.
- F multzoa: 3.000,00 euro.

Proiektuak elkarren lehian baloratuko dira, multzo bakoitzaren barruan (F multzoan izan ezik, kasu horretan hainbaketa egingo baita). Oinarrien arabera, proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoa erabakitzeko, lortutako puntuazioaren arabera banatuko da kreditua, haren aurrekontua kontuan hartuta. Kopuruak inola ere ez du gaindituko Euskara Zerbitzuari eskatutako zenbatekoa, eta oinarrietan multzo bakoitzerako ezarritako mugak errespetatuko dira.

Balorazio batzordeak proposatu du A multzoan erabiliko ez den diru-kopurua B, C eta E multzoetan erabiltzea, deialdiak horretarako aukera ematen baitu.

Batzordeak proiektuak puntuatu ditu, deialdian ezarrita dauden irizpideen arabera, eta multzo bereko egitasmoak elkarren artean alderatu ditu. Eskabideak aztertu ondoren eta egitasmo bakoitzaren balorazioak ikusi ondoren, batzordeak honako puntuazio hauek proposatu ditu. Horri buruzko txostena espedientean bertan jaso da.

MULTZOA	ESKATZAILEA	AURREKONTUA	PUNTUAK	DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA
A	Ardatz Kultur Elkartea	6.250,00	65	5.000,00
B	Herrandarrak guraso elkartea	1.300,00	65	680,05
B	Errekabarri-Eguzkia	2.675,00	83	1.659,21
B	IES Zabalzana BHlko AMPA Mendibea ikasleen guraso elkartea. (1)	4.300,00	65	1.943,00
B	Amezti txiki Zabalzana HLHlko ikasleen guraso elkartea	1.000,00	50	373,65
B	Etokizun Alea Mendebaldea Guraso Elkartea	813	50	303,78
B	Ehari guraso elkartea (Barrutia)	6.700,00	50	1.494,61
B	AMPA Ikasberri. Guraso Elkartea (Adurtza ikastola)	3.200,00	65	1.554,40
B	Landazuri ikastolako guraso elkartea	5.000,00	55	1.644,07
B	Mariturri guraso elkartea	6.850,00	60	1.793,54
B	Ikasbidea ikastolako Iturribero ikasleen guraso elkartea. (2)	2.362,00	60	1.059,08
B	Carmelitas Sagrado Corazón guraso elkartea	4.000,00	50	1.494,61
C	Euskararen Gizarte Erakundeon Kontseilua	30.000,00	60	1.796,92
C	Arabagara Euskaldunon Elkargunea	4.375,00	65	1.703,33
C	ZET euskara taldea	3.000,00	75	1.347,69
C	Udako Euskal Unibertsitatea. UEU	5.680,00	60	1.796,92
C	Euskara Abentura elkartea	6.809,31	75	1.347,69
C	Sarburu elkartea	1.700,00	75	814,61
C	GEU elkartea	5.000,00	70	2.096,41
C	Bai Euskarari elkartea (3).	6.150,00	70	2.096,41
E	Arabagara Euskaldunon Elkargunea (3)	5.000,00	65	2.831,77
E	Goiena komunikazio taldea koo.elk.	10.500,00	55	2.875,34
E	ZET euskara taldea	5.500,00	75	3.594,17
E	Arabako Alea Komunikazio taldea S.L.	5.250,00	70	2.287,20
E	GEU elkartea	2.700,00	60	1.411,53
D	Arabako Alea Komunikazio taldea S.L.	235.000,00	87	20.000,00
F	Arduradun eskola	18.798,00	Ez dagokio	3.000,00

(1) Deialdi honen ondorioetarako, ikasturtea irailetik abuztura bitartekoa da (nahiz eta aurreten deialdia berandu argitaratu den, COVID-19aren ondorioz). 2021eko irailean egin beharreko ekintzak datorren urteko deialdian sartu beharko liriateke; beraz, ez da onartzen Mendibea gurasoen elkartek 2021eko irailean egin nahi duen proiektua (Zuatzako egonaldia).

(2) Pandemiaren egungo egoeran, ikastetxeek bertan behera utzi dituzte kanpo egonaldiak oro har. Beraz, ez dira onartu Iturribero elkartearen programaren barruan proposatutakoak (kanpo egonaldiak).

(3) Balorazio Batzordeak 2 proiektu multzo batetik bestera eramatea erabaki du, beren edukia bigarren horri hobeto egokitzen zaiolakoan: Arabagarak aurkeztutako "elkarrizketa Musikatuak" proiektua E taldera pasatu da, eta Bai Euskarari elkartearen proiektua C taldera.

Bi proposamen epez kanpo aurkeztu dira, eta, beraz, ez dira onartu eta ez baloratu: AEK A taldean; eta Pilota elkartea C taldean.

Kontuan harturik, lehenik, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa; bigarrenik, horren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; hirugarrenik, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoek diotena; eta azkenik, Diru-Laguntzei buruzko Udal Ordenantzak ezarritakoa (Udalak 2005aren ekainaren 17an onartua eta 2006ko urtarrilaren 13an ALHAOn argitaratua).

Kontuan harturik, Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuaren misioa eta helburu estrategikoak.

Ikusirik Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak besteren gain uzteko 2020ko urriaren 1eko Alkatetzaren Dekretua, Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzaren 5.1. artikulua, eta Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariak honako proposamen hau egin dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Proposamena

Lehena. 2020-2021 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko deialdia ebaztea, eta orotara 68.000,00 euroko dirulaguntza ematea, 2020 /0171.3351.48005 diru-atalaren kontura. Jarraian zerrendatzen dira entitate bakoitzari esleitutako kopuruak:

MULTZOA	ESKATZAILEA	ZENBATEKOA
A	Ardatz Kultur Elkartea. G0105204	5.000,00
B	Herrandarrak guraso elkartea. G01500057	680,05
B	Errekabarri-Eguzkia. G0151451	1.659,21
B	IES Zabalzana BHIko AMPA Mendibea ikasleen guraso elkartea. G01553767	1.943,00
B	Amezti txiki Zabalzana HLHIko ikasleen guraso elkartea. G01436062	373,65
B	Etorbizun Alea Mendebaldeko Guraso Elkartea. G01227875	303,78
B	Ehari guraso elkartea (Barrutia). G01044577	1.494,61
B	AMPA Ikasberri. Guraso Elkartea (Adurtza ikastola). G01043975	1.554,40
B	Landazuri ikastolako guraso elkartea. G01044601	1.644,07
B	Mariturri guraso elkartea. G01477959	1.793,54
B	Ikasbidea ikastolako Iturribero ikasleen guraso elkartea. G0104254	1.059,08
B	Carmelitas Sagrado Corazón guraso elkartea. G01025089	1.494,61
C	Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. G20620217	1.796,92
C	Arabagara Euskaldunon Elkargunea. G01478858	1.703,33
C	ZET euskara taldea. G01580653	1.347,69
C	Udako Euskal Unibertsitatea. UEU. G48218416	1.796,92
C	Euskara Abentura elkartea. G9587052	1.347,69
C	Sarburu elkartea. G01517937	814,61
C	GEU elkartea. G01125392	2.096,41
C	Bai Euskarari elkartea. G20948915	2.096,41
E	Arabagara Euskaldunon Elkargunea. G01478858	2.831,77
E	Goiena komunikazio taldea koo.elk. F20704375	2.875,34
E	ZET euskara taldea. G01580653	3.594,17
E	Arabako Alea Komunikazio taldea S.L. B01530823	2.287,20
E	GEU elkartea. G01125392	1.411,53
D	Arabako Alea Komunikazio taldea S.L. B01530823	20.000,00
F	Arduradun eskola. G01153220	3.000,00

Bigarrena. AEK-k (Barnetegi txikiak. Hainbat kultur ekintza) eta Pilota Elkarateak (Hainbat ekintza, entitatean euskararen erabilera sustatzea) aurkeztutako eskaerak ez onartzea, epez kanpo aurkeztu direlako.

Hirugarrena. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, ALHAOn argitaratutako iragarki baten bidez. Jakinaraztea, halaber, erabaki honek agortu egiten duela administrazio bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Laugarrena. Era berean, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean dagokion informazioa argitaratzea, diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20. artikulua betetzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 15ean

Alkatetza eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria
RAIMUNDO RUIZ DE ESCUDERO EZCURRA